



Irurako Ikastolaren aldeko Garagardo Azoka «inoiz baino beharrezkoagoa»

HELBURUA ▶ Ikastolaren eraikin berriaren gastuak ordaintzen laguntzeko bideratuko dute bildutakoa

NOIZ ▶ Etzi hasi eta igandera bitarte antolatu dute festa pilotalekuan, Udalaren laguntzarekin ▶ 4



Marimu Ugalde eta Iosune Aiestaran, atzo eginiko prentsaurrekoan. N. URBIZU

LEITZALDEA ▶

Bai Euskarari ziuurtagiriak banatu dizkiete eragileei

Leitzan eta Areson 56 eragilek badute dagoeneko ziuurtagiria ▶ 7

IGARO BALDA ▶ HERNIALDEKO ALKATEA

«Denon artean gobernatzea da gure helburua»

Herritarren parte-hartzea bultzatuko dutela dio Baldak, eta «gogoz» azaldu da ▶ 3



Igaro Balda. I. GARCIA

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Sanpedroak ate joka dira herri askotan ekitaldiz blai

Leaburu, Asteasu, Urkizu, Larraitz eta Areson ospatuko dituzte festak ▶ 6

**Aurtengoan ere,
Toureko tropela
Mediterraneora!**

Abian da tropela.net:
tourra, sarean, euskaraz,
eta sariekin...

Izen ematea dohainik.
Lehen emateko espazio limitatua, urtekoak 7. 18.00etan

Sarean erabiltzean, hitzaren harpidetza irabazteko aukera tropela.net

hitza



KULTURA ▶

Atzo arratsaldean Toni Lasalek eskainitako *Birusak erasoan* antzezlaneko une bat. E. EZEIZA

«Etxekoen» txanda izango da Amaroazko Antzerki Astean

'Un poco de tiempo' inprobisazioak oinarritutako lana taularatuko dute gaur, Amaroazko Antzerki Artisauk

ESTI EZEIZA

Herenegun hasi zen IX. Amaroazko Antzerki Astea. Honen baitan egunero, antzezlan ezberdinez gozatu ahal dute haur eta helduek Auzoetxen. Lanak,

euskaraz nahiz gaztelaniaz daude idatzita. Bestalde, azken orduko gertaera batzuenatik, aldaketak egon dira saioen ordutegian, hori dela eta, antolatzailerak barkamena eskatu nahi diote jendeari.

Lehendabiziko egunean *Cañibales adosados* taularatu zuten Pasaiaiko Antzerki tailerkoek. 30 lagun inguru bildu ziren hau ikusteko. Amaroazko Antzerki Artisauen esanetan, «nabari zen bezpera San Joan

eguna zela, hala ere, gustura geratu ziren hurbildu ziren ikusleak. Atzo umeen eguna izan zen, Toni Lasalek *Birusak erasoan* lana interpretatu zuen. Zakarrontzi eta fregonez inguratuta txotxongiloen saioa eskaini zuen. Inprobisaziorako unea ere izan zen antzezlanetan, publikotik gurasoetako batzuk eskenatokira inguratu arazi zituen, eta hauek ere aktore lanetan aritu ziren, zoru-garbi-gailuak eskuan hartuta.

Gaur berriz, «etxekoen» txanda izango da. Amaroazko Antzerki Artisauk *Un poco de tiempo* taularatuko baitute 22:00etan. Asteari amaiera emateko bi saio izango dira Auzoetxean. Batetik, 16:30etik aurrera, Asvineneakoek txotxongiloen tailerra egingo dute. Hemen, antzerki taldekoek materiala ekarriko dute eta haurrek beraien txotxongiloak egin ahal izango dituzte. Ume bakoitza panpin batekin joango da etxera. Hau bera egin zuten Tolosako Titirijain.

Gauean berriz, 22:00etatik aurrera, azken antzerki emaldia ikusi ahal izango da, Mi cabeza que habla taldearen *SOS y los demas*. Bilbotik datorren talde honek saio honekin Asvineneak antolatutako poltsikoko antzerki lehiaketa irabazi zuten. Hori dela eta, antolatzaileran esanetan, «nahiko arrakasta izan dezake saio honen».

MENDIA ▶

Oargik mendi irteera antolatu du astebururako

Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du asteburu honetarako. Hilaren 29an abiatuko dira Tolosatik eta igandean itzuliko dira. Lehen egunean Panticosara joango dira. Hurrengo egunean 2.760 metro tara dagoen Baciara igoko dira, eta igandean 2.570era dagoen Llana del Bosora (Candanchu). Informazio gehiago nahi duenak 637 83 03 80 telefono zenbakira dei dezake.

EKONOMIA ▶

22.708 zenbakia da Igarondoko saskiaren irabazle

Igarondo Tolosako Merkatarien Elkarteak antolatutako 2007ko sanjoanetako saskiaren zozketaren zenbaki irabazlea, ONCEk ekainaren 22an eginiko zozketaren zenbaki irabazle bera da, 22.708, hain zuzen ere. Irabazleak elkarteak kideekin jarri beharko du harremanetan saria jasotzeko.

KULTURA ▶

'Iberia' filma ikusgai bihar Zine-Forumean

Bihar, Zine-forumean Carlos Sauraren *Iberia* izango da ikusgai, 19:15ean eta 21:45ean. Filmak kontatzen duen istorioa musikan eta interpretatzaileetan (nola musikariak hala dantzariak) dago oinarrituta. Soinu-erritmoak eta dantzarako barne-terpoak markatzen dute *Suite Iberia* obraren zinemarako egokitzapen hau. Kritikariaren esanetan kamerak melodiarren erritmoan egiten du dantza eta filmak musika-piezak berregiten ditu.

MAY GOROSTIAGA ▶ AMAROAZKO ANTZERKI ARTISAUAK TALDEKO ZUZENDARIA

«Inprosiketa jokuak egingo ditugu aurten ere»

May Gorostiaga (Tolosa, 1971) eta bere taldekideek *Un poco de tiempo* lana eskainiko dute gaur 22:00etan, Auzoetxen.

Zergatik aukeratu duzue antzezlan hau?

Orain Augusto Boal brasildararen lan bat prestatzen ari gara, baina denborarik ez zigu ematen hau ongi egiteko, horregatik, inprobisaketa jokoa egitea erabaki dugu.

Zer dira inprobisaketa jokuak?

Ikus-entzuleek hitzak edo esaldiak idatzi beharko dituzte, eta guk, hauek aprobetxatuz, inprobisaketak egingo ditugu. Eszenografia pilotaren inguruan joango da, frontoi antzeko bat izango da dekoratua.

Zer nolako esaldi edo hitzak izan beharko dute?

Jendeak edozein esaldi idatzi ahal izango du. Dena den, gu nolabait entrenatu gara. Esaldi horretatik abiatuta, gatazka bat edo sortu beharko dugu. Bertsolari moduan ariko ginateke, esaldi batetik abiatuta, antzerki bat inprobisatuz.

Antolatutako saioetatik zein nabarmenduko al zenuko?

Denak izango dira entrenamenduari eta ikusteko politak. ◀



HITZA

hilberria ▶

Miguel Azkune Erasun

Atzo hil zen, Azpeitian, 71 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Haren emaztea: Manoli Alberdi Oñden; bere seme-alabak: Mikel eta Idoia, Joseba eta Marije, Nerea eta Maixa, Maite eta Asier; bilobak: Ekain, Oihan eta Ibai; anai-arrebak: Juli (lekaimea)(+), Benito (jesuista), Maritxu (lekaimea), M^a Angeles (lekaimea), Jose eta Mila eta Ignacita (lekaimea); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR, 19:30ean, Azpeitiko Soreasuko Sebastian Deunaren parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Errekarte Ebea (Loiola auzoa).

oharra ▶ Hilbeila Azpeitiko Carmona ehorketza tanatorioan egingo da.

AZPEITIA, 2007ko ekainaren 27a

hilberria ▶

Juan Alustiza Arrondo

(Mari Etxaluzeren alarguna)

Laida, Andoni eta Maialen, Oihane losu eta Ibai azken fruitua ltxaso zendun txori apain eta alai gu beti pozik egoten giñan zure maifasunaren zai zu ere pozez egoten ziñan gu besarkatzeko nun nai aitona emen maite zintugun orain zeruan ere bai.

ZERAIN, 2007ko ekainaren 27a

IGARO BALDA ▶ HERNIALDEKO ALKATEA

«Herri txiki bat gara eta denon artean gobernatzea da helburua»

Igaro Balda da Hernialdeko alkatea datozen lau urteetarako; «gogoz» dago eta Udaletik herritarren parte-hartzea bultzatuko dutela azaldu du

IMANOL GARCIA

Hernialdeko alkatea da hilaren 16az geroztik Igaro Balda (Hernialde, 1986). Alkate postuan dagoen gazteena da eskualdean eta Gipuzkoan osoan ere. Udalean eginbeharrekoak goi zikloko informatika ikasketekin bateratuko ditu.

Nola osatu zen Hernialdeko Herritarrek zerrenda?

Urrian hasi ginen bilerak egin. Pixkanaka joan ginen jende multzo bat osatzen eta hasi ginen izenak ematen. Behin izenak emanda, bilera bat egin genuen gure artean eta postuak banatu genituen. Animatu nintzen zerrendan aurrea izatera, baina beste edozein jarrira ere ez zitzaidan axolako.

Herri handiagoetan zerrendaburua zehaztuagoa egoten da. Hernialden talde bezala aurkeztu zineten.

Hemen asmoa da talde lana egitea. Alkateak bere lanak eta ardurak izango ditu, noski, baina talde lanak du garrantzia. Gero herriko jendea ere prest dago laguntzeko. Herri txiki bat da eta denon artean gobernatzeko da helburua. Beste herrietan Udalean alderdi ezberdinak daude. Hemen gu bakarrik gaude.

Orain lau urte herritarrek osatutako zerrenda baliogabetu zuten. Kontuan izan duzue gai hori zerrenda egitera koan?

Aurretik ezker abertzaletik aurkeztu zen jendea zerrendan zegoelako baliogabetu zuten orain lau urte. Aurtengoan herri batzarretan hori kontuan izan dugu prebentzio gisa, beste lau urte Udala egoera berdinean geldituz gero berriro urte horiek guztiak izango baikenituen ezer ez egin gabe.

Nola ikusten duzue zure burua alkate bezala?

Oraindik oso fresko, berri-berri. Baina gustura, gogoarekin gauzak egiteko eta ahal dena herriaren alde egiteko.

Dagoeneko hasi zara alkate lanetan?

Bi aste daramatzat ia egunero etortzen. Gehienbat dagoena irakurtzen ari naiz eta idazkariarekin hitz egin erakusteko zer gauza dauden. Gero festak gainean ditugu eta horiek antolatzen ari gara.



I. GARCIA

Irakurri behar dituzun zenbait gauza nahiko teknikoak izango dira, ezta?

Askotan bi aldiz irakurri beharrekoak izaten dira, edo idazkariari eta administrariari galdetu beharrekoak. Baina pixkanaka joango naiz egiten.

Zer balantze egiten duzue aurreko legealdiaz?

Ikusi dut ezin izan dugula ezer egin. Saiatu naiz zerbait antolatzen zen bakoitzean, Agenda 21eko bilera izan direnean eta parte hartzen. Baina ikusi da zerbait behar zela, bestela herri batean ezin da ezer egin, ez duzu aukerarik ezer egiteko. Hori da arazoa.

Orain udal baten egunerokotasuna ezagutzen ari zara.

Gauza pila bat daude lau urte hauetan onartu direnak, baina zintzilik daudenak. Lau urteko lana atzeratuta dago, gero mementuan dagoena eta aurrera begirakoa. Gauza asko dago egiteko.

Proiekturen batzuk aurreikutsita dituzue?

Taldea herriko bileretatik osa-

tu zen. Ez dugu programarik egin. Etxeetara bidali genuen papera esanez berriak ginela eta herrian zer behar zeuden galdetu genuen. Ni goiko partean bizi naiz, baina herria nahiko zabala da. Nik behekoa ez dut ezagutzen eta behekoa goikoa ere ez. Horregatik ere galdetu genion jendeari zer behar ikusten dituen.

Eta zer gai dituzue mahai gainean?

Herrian gazte jende asko dago

eta horregatik etxebizitza kontua hor dago, gazteak herrian gelditzeko. Bestalde, pentsatzen ari gara turismo aldetik herria bultzatzea, Santa Kruz apaizaren datuekin, kobazulo bat ere badago...

Agenda 21eko ekintza planak zerikusia izango du jorratuko diren gaiak tratatzerakoan.

Bai, hor ere etxebizitzaren eta turismoaren gaiak ere aipatzen dira. Beste gaia aipatzen dena urarena da, oso gai potoloa he-

rrian. Ibiurko ura herria ekartzearan alde ez dira agertzen herritarrek. Halere, ikusi behar dugu teknikoek zer esaten duten herriak ura ekartzeko dituen aukerei buruz. Bestalde, ekintza kulturalak bultzatu nahi dira. Herrian haur asko daude eta beraientzako ekitaldiak egitea aurreikusten dugu.

Nola ikusten duzuen herritarren parte-hartzea?

Udalean bertan izango dira lau komisio informatibo: hirigintzako, kulturako, ekonomia eta soziala. Berdinak ere izango dira herri mailan, herriko jendearekin. Funtzionatzeko modua izango da hemengo zinegotziak herriko jendearekin lana egitea.

Hernialde herri parte-hartzailea da?

Lau urte hauetan ez delako ezer egin, jendeak ikusten du gauza asko daudela egiteko eta prest dago laguntzeko. Eta Udaletik hori nahi dugu bultzatu, herritarren parte-hartzea. Aurreko larunbatean San Joan sua egin genuen plazan urte askotan lehenengo aldiz. Ea zenbat jende etorriko zen galdetzen genion gure buruari. Lehenengo afaria egin genuen eta gero sua. Ia festetan bezala, jende ugari etorri zen. Ikusten da jendea gogoz dagoela ekintza berriak egiteko eta azken urteetako dinamika aldatzeko.

Gustura hartuko zuten Udaleko idazkariak eta administrariak alkate bat izatea, ezta?

Bai, gustura hartu dute. Idazkariarentzat pisu handia zen aurreko egoera. Jendea eskaerakin etortzen zen, baina berak ezin izaten zuen ezer egin.

Orain zure eginkizuna izango da jendearekin hitz egitea eskariekin etortzen denean.

Oraindik jende asko ez da etorri udaletxera. Gehiena etorri diren gurasoak izan dira, datorren ikasturteko aurrera haurrentzako ekintzak bultzatzeko asmoarekin. Ludoteka egingo da uztailan bi urtetik sei urte bitartekoentzat. Irailetik aurrera ere liburutegia martxan jarriko da. Irailetik aurrera hasiko gara plan gehienak gauzatzen.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Berrobin 3 logelako etxebizitza, eguzkitsua, bista ederrak, atiko gela eta trastelekua. 34.800.000. JM 657 77 00 85.

GALDUTAKOAK

Giltzak. Ibarroko San Ignazio auzoan, erreka ondoko pasealekuan giltza batzuk aurkitu dira. 658 73 06 51.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

IRURA ▶ GIZARTEA

5. Garagardo Azoka, aurten ikastolako eraikin berrirako

Marimi Ugalde alkateak eta Iosune Aiestaran ikastolako zuzendariak etzi hasiko den feriaren aurkezpena egin dute



Marimi Ugalde alkatea eta Iosune Aiestaran ikastolako zuzendaria, atzoko aurkezpenen. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Atzo Irurako udaletxean aurtengo Garagardo Azoka aurkeztu zuten Marimi Ugalde alkateak eta Iosune Aiestaran ikastolako zuzendariak. Azken hiru urteetan bezala, ikastolarentzat izango da ateratako diru guztia. Aurten, inoiz baino gehiago laguntza berezia eskatu dute, «datorren urtean erai-

kin berria izango baitugu eta kilometroak jaialdia hemen izango baita».

Etzi, larunbatean eta igandean egingo dute azoka; 19:00etan irekiko dituzte atek lehen egunean, «jendea nekatu arte». Larunbatean eta igandean, aldiz, 18:00ak aldera sartu ahal izango da pilotalekura.

Eraikin berriaren lehenengo harria jarri zuten joan den api-

rilaren 21ean, eta lanean hasi dira dagoeneko datorren urteari begira. Marimi Ugaldek eta Iosune Aiestaranek 5. Garagardo Azokaren berri eman zuten, «ikastola herriarentzat eta herria ikastolarentzat izango dela» adieraziz. Hiru egun iraungo du eta 13 bat garagardo ezberdin izango dira: San Miguel eta Kronenburg, besteen artean, baina zapore eta kolore ezberdinekoak denak.

Ez da janaririk faltako: saltxitza zuria eta arruntak, kroketak, Irurako txistorra, bakaila-oa saltzan eta ukondoa. Posterrako, berriz, gazta, irasagarra, euskal pastela eta Irurako pasteltxoak izango dira. Kafea ere, bukatze, denentzat prestatuko dute.

Ikasleen pitxiak salgai

Etzi atek irekitzen dituztenetik eta «01:00a arte edo», izango da zer edan eta zer jan. «Lanean jende asko behar da eta egongo da, baina barraren beste aldean ere behar da norbait edaten eta jaten: dena eta gehiago behar dugu, guk gustura asko artatuko ditugu».

Irakasleak, gurasoak, herriarrak eta ikasleak ere daude lanean, ilusio handiarekin, da-

AZOKA ▶

Jaia. 5. Garagardo Azoka.

Egunak. Hilaren 29, 30 eta uztailaren 1a.

Ordua. 19:00etatik aurrera etzi, eta besteetan 18:00etan.

Herria. Irura.

Tokia. Pilotalekuan.

Helburua. Ateratako diruarekin datorren urte bukaerarako izango duten ikastola berria ordaintzen laguntzea.

torren urteari begira. Irurako ikasleek postutxo bat jarriko dute Garagardo Azokan. Bertan, pultxerak eta pitxiak izango dira salgai, eta «lortutako diru guztia gogoz ikastola eraikitze emango dute beste behin». Han izango dira hiru egunetan zehar denak, Irurako pilotalekuan sartuta, ikastolaren alde.

Lanean irakasleak, Marimi Ugalde bera, gurasoak eta herriarrak izango dira. Aurtengo kartela, adibidez, guraso baten diseinatu du, Joxean Apeztegiak, hain zuzen. Denek egin dute zerbait. Herenegun dagoeneko hasi ziren frontoia txukuntzen.

Eraikina baino gehiago

Marimi Ugaldek esan zuen bezala, Garagardo Azokan ateratako dirua «ez da bakarrik eraikuntzak aurrera egiteko, baita instituzioak berak aurrera egiteko ere». Horregatik, herriarrez gain, kanpotarrei ere deialdi berezia egin zieten prentsaurrekoan: «Ongietorriak izango dira kanpotarrak ere, noski».

Lanean hasi dira kilometroak jaialdiari begira, Bergararekin ere harremanetan jarri dira, eta talde ezberdinak antolatzen hasiak dira.

Gero eta ikasle gehiago daude ikastolan, «aurten 28 haur gehiago izango dira». Horregatik «oso beharrezko» ikusten dute laguntza ekonomikoa ematea. «Uste dugu oso inportantea dela ikastola herriaren egotea».



Azokako kartel iragarlea. N. U.

AMEZKETA ▶

Musikako ikasleen emanaldia gaur

Gaur 16:00etatik aurrera Amezketako Zumadi eskolako pilotalekuan, musika eskolako ikasleen emanaldia izango da. Trikitixa, panderoa, saxofoia eta dantza ere izango dira bertan. Urtero bezala, ondoren bertaraten direnentzat merienda ere prestatuko dute. Amezketako musika batzordeak antolatutakoa da.

ALEGIA ▶

Txistuen kalejira egiteko deialdia etzi izango da

Alegiko jaien ospakizuna dela eta, Jai Batzordeak herriko txistularien kalejira bat antolatu nahi du, uztailaren 15erako. Horretarako bilera antolatu dute. Etzi 20:00etan Kultur Etxean biltzeko asmoa dute. Bilera honen helburuak partituren banaketa eta entsegu egitea dira. Herriko txistulari guztiak bileran parte hartzeko gonbidatuta daude.

ALKIZA ▶

Aiztondo VI. argazki rallyaren erakusketa

Alkizan Aiztondo VI. argazki rallyaren erakusketa prestatu dute ikusleen gozamenerako. Herriko Kultur Etxean izango dira ikusgai etzi arte, eta goizean bakarrik dago bisita egiteko aukera, 11:00etatik 13:00etara bitartean, hain zuzen.

ALEGIA ▶

Jaietako zikiro jaterako txartelak salgai daude

Alegiko festetako egitarauaren baitan, jadanik zikiro jate egunerako txartelak salgai daude. Uztailaren 1a bitartean eros daitezke Etxeberrin, Jubilatuenetan, Kafe Letamendian, Iskinan eta Kurpilen. Zikiro jatea uztailaren 13an, 21:00etan izango da eta eta 23:00etan honako bertsolariak ariko dira: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Jon Maia. Ondoren, Izotz taldeak dantzaldia eskainiko du.

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

hitza

Praktikak HITZAn irailatik aurrera

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziatuetarako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 behea- atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
(uztailaren 15a baino lehen)

SAN PEDRO JAIK ▶

San Pedroren txanda asteburuan

Areso, Asteasu, Larraitz, Leaburu eta Urkizun jaiak izango dituzte asteburu honetan, San Pedro eguna dela eta

ASIER IMAZ

Santu bat joan da eta badator bestea. Herrietako jaiak egongo ez balira, asko agian San Joan eta San Pedrotaz gogoratu ere ez litzateke egingo. Baina kontuak kontu, asteburu hone-

tan eskualdeetako hainbat herri eta auzotan jaiak ospatuko dituzte San Pedro aitziakiaz harturik.

Jaiak katolikotasunean bizi dituenak ere, zer ospatua izango du Areso, Asteasu, Larraitz, Leaburu eta Urkizun, batez ere

etzi, San Pedro egunean hain zuzen ere. Areso berriz, igande aterako dute santua prozesioan herritik barrena.

Urkizun jaiak lau egun iraungo duten bezala, Larraitzen igandean izango dute San Pedro egunaren ospakizuna. Horretaz gain, Gipuzkoako Segalari Txapelketaren finala jokatu dute bertan, 12:30ean hasita; Gazteluko Gabirondo eta Goikoetxearekin batera, lehian Orendaingo *Urki*-k hartuko du parte.



Areso urtero bezala eskean ibiliko dira trikitixa lagun dutelarik. J. A.

SAN PEDRO JAIK 2007 ▶

ARESO

ETZI

21:00. Gazte afaria.

EKAINAK 30, LARUNBATA

09:00. Gosaria.

10:00. Eskea baserrietan.

15:30. Bazkaria.

19:00. Musika plazan.

21:00. Herriko afaria.

00:00. Musika plazan.

UZTAILAK 1, IGANDEA

09:00. Gosaria.

12:00. Meza.

Ondoren. Prozesioa. San Pedro ibiliko dute herrian zehar.

13:00. Eskean herrian barrena.

15:00. Bazkaria.

18:00. Musika plazan.

ASTEASU

BIHAR, HAURREN EGUNA

10:30. Haurren arteko krosa eta marrazketa lehiaketa.

12:00. Haur parkea.

14:00. Haurren arteko bazkaria herriko plazan.

15:30. Haur parkea.

20:30. Txupinazoa, Sorginaren Jaitsiera eta pregoia. Azkenik, txistulari eta buruhandiekin kalejira.

22:30. Bertso saioa frontoian, Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano, Igor Elorza, Jon

Maia, Xabier Paya eta Iker Zubeldia bertsolariekin. Gai jartzailea: Unai Elizasu.

Ondoren. Trakets Taldea.

ETZI, KOADRILEN EGUNA

10:00. Txistularien Diana.

11:15. Meza Nagusia.

Ondoren. Hamaiketako eta Asteasuko Pelota Eskola Txapelketako finalak.

14:30. Koadrilen bazkaria herriko plazan.

17:30. Kanika Txapelketa.

18:30. Asteasuko XII. Dantza Solteko Txapelketa.

19:30. Asteasuko musika kalejira.

21:30. Herri Afaria.

Ondoren. Estanga anai-arrebak trikitilariarekin Erromeria.

00:00. Zehensuzkoa eta su festa. Mulambo taldearekin batukada kalejira.

EKAINAK 30, LARUNBATA

JUBILATUEN EGUNA

11:15. Meza.

Ondoren. Jubitongo Elkartek herriko jubilatuei eskaintzen dien hamaiketako.

Eguedian. Herri kirolak: Alkizalete anaiak aizkolariak eta Otaegi eta Flores II.a harri-jasotzaileak.

14:30. Jubilatuen bazkaria. Bertan Telleria eta Zeberio

bertsolariak eta Xapre eta Zaharra trikitilariak ariko dira.

16:00. Haur jolasak.

17:00. Asteasuko XXI. Mus Txapelketa Herrikoia.

18:00. Zezen txikiak eta ponyak.

19:00. Haur antzerkia, Kukubiltxo taldearen eskutik.

21:00. Barrikotea. Janaria bakoitzak eraman behar du.

23:00. Diskofesta.

UZTAILAK 1, IGANDEA

10:00. Asteasuko Pilota Eskola Txapelketako finalak.

12:00. Asteasuko Pala Txapelketaren finala.

Ondoren. Sagardo dastaketa.

18:00. Herritarren arteko herri kirolak.

19:00. Aiko Taldea: musika eta dantza animatzaileak.

LARRAITZ

UZTAILAK 1, IGANDEA

12:00. Gipuzkoako Segalari Txapelketako finala.

12:30. Meza Nagusia.

Ondoren. Hamaiketako eta trikitilariak.

Arratsaldean. Trikitilariak iluntzera arte.

LEABURU

ETZI

10:00. Suziriak eta gero txistulariek Diana joko dute.

10:30. Meza Nagusia.

Ondoren. Herriko dantzarien saioa.

11:30. Hamaiketako herriko ostatuan.

12:30. Leaburuko 35. Toka Txapelketa.

17:30. Haur jolasak, amaitzean txokolatada.

21:00. Barrikotea. Janaria bakoitzak eraman behar du.

Sagardoa antolatzaileen esku.

EKAINAK 30, LARUNBATA

15:30. Mus Txapelketa, Zazpi Bide Elkartean.

20:30. *Euskal Presoak Euska Herrira* elkarretaratzea.

Ondoren, argazkia aterako dute Andoni Otegi bidaltzeko, bere urtebetetzea delako.

21:00. Herri afaria Irazu eta Uranga bertsolariekin.

Trikitilariak ere egongo dira, Saioa eta Alabier. Txartelak Leaburuko Ostatuan daude salgai 27 eurotan.

UZTAILAK 1, IGANDEA

09:00. Tolosako dultzaineroen Diana.

10:30. Meza.

11:15. Euskal Herriko Toka Txapelketa.

18:30. Herriko dantzarien saioa. EHNA tramitatzeko aukera ere egongo da bertan.

19:00. Herri kirolak:

Gipuzkoako Harri-jasotzaile

Harri Txikien Txapelketa;

Gipuzkoako Orga Joko

Txapelketa eta azkenik,

Gipuzkoako Ingude Altxatze

Txapelketa.

URKIZU

BIHAR

20:00. Suziriak eta

kanpaiekin festei hasiera

emango zaie.

ETZI, SAN PEDRO EGUNA

09:00. Kanpaiek joko dituzte.

11:00. Meza Nagusia eta

ondoren hamaiketako.

14:00. Bazkaria. Trikitilariak

eta bertsolariek alaituko dute

eguna.

EKAINAK 30, LARUNBATA

20:00. Suziriak eta kanpaiek

joko dituzte.

21:00. Auzoko afaria.

Trikitilariak alaituko dute afaria

eta afalostea.

UZTAILAK 1, IGANDEA

09:00. Diana izango da

auzoan zehar.

10:30. Meza Nagusia.

12:30. Toka txapelketa egingo

dute.

18:00. Bolo txapelketa eta

umeen jolasak. Trikitilariak

alaituko dute giroa egun osoan

zehar.

Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m2ko etxebizitza

salgai. Egoera oso onean.

Altzari eta guzti dituela.

Anoeta. Berriki eraiki eta

kanpoalderra begira dagoen

etxebizitza salgai dago.

Garajearekin eta altzariz

hornitua.

Anoeta. Harrizko baserrian

90m2ko etxebizitza salgai.

Berritzeko.

Donostia. Mandasko duke

kalean atikoa dago salgai.

Eraberritua.

Betelu. Hiru logelako etxebizitza

salgai. Egongela, sukalde, bi

bainugela, terraza eta altzariz

hornitua. Egoera ezin hobean.

Ibarra. Bi logelako etxebizitza

salgai. Sartzeko moduan. Plazaren

inguruan kokatua.

Irura. Etxebizitza atikoan. Hiru

logelakoa. Dena kanpoalderra. Oso

eguzkitsua. Oso egoera onean.

Tolosa. Ostalaritzako negozioa

salgai, erdigunean. Negozioa

funtzionamenduan aurkitzen da

gaur egun.

Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako

etxebizitza. 70 m2.

Tolosa. San Esteban auzunean, bi

gelako etxebizitza, igogailuarekin

eta erabat berritua.

Tolosa. Pedro de Tolosa.

122 m2ko etxebizitza, garajea eta

trastelekua.

Tolosa. Berazubi auzoan,

laugarren solairuan etxebizitza,

eraberritua.

Tolosa. Gernikako Arbolan,

35 m2ko merkataritzarako

lokala, 35 m2ko sotoarekin.

Tolosa. Etxe atxikia salgai. Bi

bizitzatan banatua, garajea eta

txokoarekin.

Tolosa. Belate inguruan, azken

lau garaje ibxiak, eraikuntza

berrikoak.

EUSKARA ▶



56 saltokik eta enpresak eskuratu dute Leitzan eta Areson Bai Euskarari Ziurtagiria. NAIARA GARZIA

ERREDAKZIOA

Ziurtagiriaren Elkarte sortu berriak Bai Euskarari Ziurtagiriak banatu dizkie euskararen normalizaziorako neurriak garatzen ari diren Leitzaldeko entitateei. Izan ere, aurreko astean Donostiako Kursaal aretoan ospatutako ekitaldi nagusian Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, proiektuaren kudeaketaren lekukoa pasatu dio Ziurtagiriaren Elkarte berriari. Hemendik aurrera, Ziurtagiriaren Elkartearen esku egongo da Bai Euskarari Ziurtagiriaren kudeaketa. Ziurtagiria jaso duten 56 saltoki, enpresa eta bestelako entitate Leitzan eta Aresokoak izan dira; gainontzeko 19ak, Goizueta eta Aranokoak.

Goizuetan eta Leitzan herri-tarren aurrean egindako bi ekitaldietan, «Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateek eman dituzten urratsak, ematen ari direnak eta emango dituztenak dira, euskararen eguzkia pizten eta bizitzaren duten argia», esan die Ziurtagiria eskuratu dutenei Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendigurenek.

Duela 7 urte sortu zenetik 1.500 entitatek baino gehiagok eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria Euskal Herri osoan, eta gero eta herri gehiagok hartzen dute parte proiektu honetan. Aurreko asteetan, Baztan, Goizueta eta Leitzan izan ziren Ziurtagiriaren Elkartearen ordezkariak eta aste honetan, Iparraldeko Bai Euskarari Ziurtagiriaren ekitaldia ospatuko dute Saran. «Elkarte honetan, zuek, ziurtagiria jaso duzuenok, elkartearen parte bihurtuko zarete», azaldu die Mendigurenek.

Bai Euskarari ziurtagiriak banatu dituzte Leitzaldean

Ziurtagiriaren Elkarte berriak burutu zuen ekitaldia Leitzako plazan; guztira 56 eragilek eskuratu dute ziurtagiria

ERAGILEAK ▶

ARESO

Aresoko Eskola. Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

Aresoko Guraso Elkarte.

Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

Kultur Taldea. Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

Larrea Elkarte. Bidean.

Leitza Mandriladora S.L.

Bidean.

M.E. Latz. Bidean

Pake-Toki Elkarte. Guk zerbitzua euskaraz.

Usoa Ehiztarien Elkarte. Bidean.

LEITZA

Amaita Arrandegia. Guk zerbitzua euskaraz.

Amazabal BHI. Testua

Amazabal Guraso Elkarte.

Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

Arakindegia Jatetxea. Bidean.

Ardotegia Lenitz. Bidean.

Aritzeta Landetxea. Bidean.

Asketa Abesbatza. Guk zerbitzua euskaraz.

Asociacion Etxetxuria. Bidean.

Aurrera Kirol Elkarte. Guk zerbitzua euskaraz.

Biok Jantziak. Bidean.

Club Areso Kirol Elkarte.

Guk zerbitzua euskaraz.

Denok Bat Guraso Elkarte.

Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

Dia Supermerkatua. Bidean.

Erbiti Farmazia. Bidean.

Erleta Haur eta Lehen

Hezkuntzako Ikastetxe

Publikoa. Guk zerbitzua euskaraz.

Etxe - Tresnak S.L. Bidean.

Euskadiko Kutxa - Leitza.

Guk zerbitzua euskaraz.

Gabriel Saralegi. Bidean.

Gaztañaga Taberna. Guk zerbitzua euskaraz.

Gaztelu Iturgintza. Bidean.

Gerardo Arrupea - Mapfre.

Bidean.

Goiko Iorezaintza. Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

Gorritz Arkume eta Gaztak.

Guk zerbitzua euskaraz.

Gorritz S.L. Guk zerbitzua euskaraz.

Haur Eskola. Guk zerbitzua euskaraz.

Jose Larrañaga S.A. Bidean.

Kapritxo. Guk zerbitzua euskaraz.

Karrape Irratia. Guk zerbitzua euskaraz.

Kultur Taldea. Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

Leitza Asesoria. Bidean.

Leitza Garajea. Bidean.

Jubilatuak Elkarte. Guk zerbitzua euskaraz.

Lizarraga Harategia. Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

M. Plaza Tuñon Farmazia.

Bidean.

Maddalen Lazkano. Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

Mendibil Menti Taldea. Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

Musunzar Ostatu. Guk zerbitzua euskaraz.

Peritza Taberna. Guk zerbitzua euskaraz.

Perurena Harategia. Bidean.

Ramon Lizarraga - ALIPROX.

Bidean.

Sagasti Jatetxea. Bidean.

Saharar Herriarekin

Elkartasun Taldea. Guk zerbitzua eta lana euskaraz.

SDCR Guratz Mendi. Bidean.

Talotegia. Guk zerbitzua euskaraz.

Torra Gastronomia eta

Kultur Elkarte. Guk zerbitzua euskaraz.

Urkiola Harategia. Guk zerbitzua euskaraz.

Zortziko Labetxea S.L. Guk zerbitzua euskaraz.

Zurion zurgindegia. Guk zerbitzua euskaraz.

Leitzaldeko kasuan, lau urte igaro dira jada Bai Euskarari Akordioa abian jarri zutenetik eta iragan ostiraleko ekitaldian, herrietako eragileek azken urtean egindako lana aitortu nahi izan zuten. Haiek ere izan zuten hitza hartzeko parada. Jon Huizik, Goizuetako Jarraipen Batzordeko ordezkariak, esaterako, Goizuetak eta Aranok Jarraipen Batzorde propioa izatea beharrezkoa iruditzen zaiola adierazi zuten. «Gure asmoa konpromiso prozesu hau ahalik eta gehien hedatzea da eta horretarako guztion ekarpena behar dugun», aitatu zuten.

Irudi berria

Ildo beretik, Aresoko alkateak ere, bere babesa berretsi zion Leitzako proiektuari. Mikel Barraibarrek, Udalak urratsak emango dituela azaldu zuten. «Herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatu daitezkeen, idazkari euskalduna dugu Aresoko Udalean».

Ziurtagiriaren Elkartearen sorrerarekin batera, irudi berria estreinatu du Bai Euskarari Ziurtagiriak eta ondorioz, material berria jaso zuten Leitzaldeko eragileek. Opari gisa ere, Jorge Oteizaren artelana bana banatu zieten. Ekitaldia bukatzeko eta Ziurtagiria eskuratu zutenak omentzeko txistu emanaldia izan zuten Leitzan.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Anoeta. Udaleku irekiak antolatuta dituzte Anoetan haurrentzat. Bi txanda: lehena uztailaren 2tik 13ra, asteleheneetik ostiralera, 10.00etatik 13.00etara; eta bigarrena uztailaren 16tik 27ra. Izen-ematea, udaletxean 35 eurotan.
Tolosa. Amarozko antzerki artistaek *Un poco de tiempo* antzezlan eskainiko dute 22:00etan Amarotzen, Antzerki Jardunaldien barruan.
Tolosa. Datorren ikasturterako matrikula irekita dago Udal Musika Eskolan, 9:30etik 13:00etara.
Leitza. Aralarko musika eskolan 2007/08 ikasturteko matrikulazio kanpaina zabalik dago udaletxean hilaren amaiera bitarte.
Villabona. Biltoki jubilatuen elkarteak irteera antolatuta du Harora uztailaren 10erako. Argantzoren eta Gasteiz ere bisitatuko dituzte. Izen-ematea, elkartearen 19 eurotan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alegiko jubilatuen tabernan eskualdeko Xegunda Iztuetaren margolan biziak daude ikusgai, asteartetik igandera bitarte. Orokorrean, paisaiak egiten ditu, eguzkiak zeruarekin sortzen dituen kolore berezi eta ederrak islatuz.
Tolosa. Aranburun, Kultur Etxeko arte plastikoaren lantegietako ikasleen lanak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren erreposoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak.*
21:00-23:00. *Bide okerretik.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Itsaso zabala begietan

BIDEGOIAN-ALBIZTUR ▶ Bi herrietako eguneko zentroko adinduek Zarautz bisitatu zuten, eguzkia eta galerna egun berean azalean sentituz



Bidegoiango, Albizturko eta Errezilgo adinekoek Zarautz bisitatu zuten. Hondartzan izan ziren, eta merienda ere hartu zuten. HITZA

ERREDAKZIOA

Itsasoaren zabalera, lehen aldiz aurrez aurre ikusteko aukera: Ibai gazi eta handi horren isla esperientziak beteriko begi bizi-bizietan ikusi ahal izan zen hilaren 19an. Albizturko, Bidegoiango eta Errezilgo eguneko zentroko bi aitonek lehen aldiz itsasoa ikusi zuten orduan.
Itsasoa aurrean izateko aukera mendialdeko hainbat ai-

ton-amonek ez dute egunerokoz izan. Horieta askok ezagutzen badute ere, harritu egiten dira oraindik. Saiatz Mankomunitateko Hots Atsegin enpresako langileei esker, eguneko zentroko eta etxeko laguntza jasotzen duten adinekoek Zarautzen egun pasa egiteko aukera izan zuten.
Egun pasa ederra igaro zuten eguraldiak lagun zutelarik. Goizean autobusa hartu eta kostaldera, Zarautzera joan zi-

ren 20 aitona-amon. Bainujantzia eraman zutenik ere izan zen, eta baita uretara sartzen animatu zirenik ere izan zen.

Erraz ahaztuko ez dutena

Hondarraren goxotasuna hantketan ere sentitu zuten aspaldiko partez, eta batzuk lehen aldiz. «Ez dut hantketan minik hartzen», zioten. Ez zen, hala ere, begiek eta azalak jaso zuten sentsazio bakarra, galerna

lehen aldiz ikusi baitzuten ondoren. Horregatik, eguneroko kafea hartu ordez, txokolata txurroekin meriendatu zuten, «aberatsen moduan».
Hots Atsegingo langileentzat lana suposatu badu ere, «oso esperientzia positiboa» izan dela adierazten dute bihotzez, ez baita erraza izango aitona-amon hauen aurpegi eta begi bizi horiek ahaztea. Oraindik ere zentroan Zarautzez hitz egiten dute denek.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Manex Vega Karrera.
Gaur urtebete.
Guraso eta familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...